

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

16-6-30 18. ALEA

Uztaileko
eskaintza

2. ORR. >>

Irene Urruzola
liburuzaina


8. ORR. >>

Danena korrika
hasi da

10. ORR. >>

Herriko
bailarak
berreskuratuz

4. ORR. >>



Haur eta gaztetxoentz

4 urtetik 17 urte bitartekoentzako eskaintza zabala prestatu du Udaleko euskara eta gazteria sailak.

2

Zizurkilgo haur eta gazteek uztailean ez dute aspertzeko betarik izango. 4 urtetik 12 urte arteko haurrek, hamar urte baino gehiago daramatzan *Oporretan Euskaraz* programarekin ondo pasatzeko aukera izango dute ekainaren 27tik uztailaren 22ra. 13-17 urte bitarteko gaztetxoek berriz, Gaztezulo zerbitzuaren bidez, hainbat ekintza eta irteeratan parte har dezakete.

Inoiz baino haur gehiago


Laurogeita hemeretzi umek eman dute izena uztaileko *oporretan euskaraz* programan. "Udalak zerbitzu honen

gaineko apustu sendoa egin du eta aurten lehen aldiz, ez du ume kopuruan mugarik jarri", azaldu du Ainhoa Larrea teknikariak. Era honetan, izena eman duten Zizurkilgo haur guztiak onartu dira. Ia 100 ume horiekin lan egiteko 10 begirale zizurkildar hartu dira. "Ohi bezala, Urtxintxa Hezitzaile Eskolak egin du begiraleen hautaketa prozesua eta aukeraketa bera". Ekin-tzen programa zehaztu gabe dago, begiralea eurak baitira hilabeteko edukiak prestatzen dituztenak; dena den, Larreak hainbat gauza aurreratu dizkigu: "Aurten, Olaederra po-

likirodegira joan beharrean Asteasuko igerilekura egingo dituzte irteerak ekainaren 28an eta uztailaren 14an. Hernaniko igerilekuetara ere irteera egingo dute uztailaren 20an. Uztailaren 5ean, Aiako Pagoetara joango dira eta 12an Pasaiaiko Albaola ontzi museoa bisitatuko dute". Irteera erakargarri horiez gain, ohitura diren beste hainbat ekintza ere egingo dituzte. Hala nola, "uztailaren 7an San Fermin eguna ospatuko dute, uztailaren 11ean pirata eguna izango da eta uztailaren 13an Zizurkilgo Portxeta base-rrira igoko dira goiz pasa" azaldu du Larreak.

Bide batez, elkarriketa hau baliatu nahi izan du kultura teknikariak *Oporretan Euskaraz* programaren helbururik garrantzitsuen gogoratzeko. "Ez da ludoteka zerbitzu soil, udako hilabeteetan euskara sustatu eta euskaraz ondo pasatzeko xedea du", dio. Horregatik, garrantzitsua da, haurrek ez ezik, haurrak uztera gerturaten diren gurasoen artean euskaraz hitz egitea. "Eta ez dakiteneke, keinu txikiak egin ditzakete, haurrak euskaraz agurtuz adibidez. Eredua ematea oso garrantzitsua da", azpimarratu du amaitzeko.





Udalako eskaintza freskoa

«Udalak Oporretan Euskaraz gaineko apustua egin du, ez du ume kopuruan mugarik jarri. Izena eman duten Zizurkilgo haur guztiak onartu dira»

Ohi bezala, Pedro Mari Otaño eskolan elkartuko dira.

Gaztezulo ere ekintzaz bete



Oporretan euskaraz eskaintza 12 urte artekoentzako denez, adin muga gainditzen dutenei herrian ondo pasatzen jarraitzeko aukera eman nahi izan zaie. Gaztezulok 13 eta 17 urte artekoentzako hamaika ekintza antolatu ditu,

ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTIRALA
		1 Hernaniko igerilekuetara irteera
5 Zurriolako hondartzara irteera	6 Gazteek erabakitakoa	8 Kontxan Paddle surf
12 Leitzarango errekarra	13 Gazteek erabakitakoa	15 Karting Olaberria
19 Bi eguneko irteera: Baztan Abentura Park	20 Bi eguneko irteera: Baztan Abentura Park	22
26 Riofreskora irteera	27 Gazteek erabakitakoa	29 Batido tailerra

zein baino zein erakargarriagoak (*ikus taula*). "Ekintzak baino gehiago irteerak dira. Lehendabiziko aldia da adin tarte honentzako era honetako ekintza bereziak antolatzen ditugula". Ez dago hileko kuota bat ordaindu beharrik, ezta ekintza guztietara joateko konpromisoa hartu beha-

rrik ere. "Programa begiratu eta nahi duen irteeran parte hartu dezakete. Ekintza bakoitzak bere prezioa izango du, eta nahikoa da egun batzuk lehenago Udal bulegoetan izena ematea", azaldu du. Taulan agertzen diren ekintza guztien artean, Baztan Abentura Parkean egingo

duten bi eguneko egonaldia azpimarratu dute. "Iaz Zugarramurdira joan ziren bi egun pasatzera eta esperientzia bikaina izan zen", gogoratu du gazteak animatu nahirik. Haur edo gazte, uztail honetan aspertzeko betarik ez!



Oferta refrescante para el verano

El mes de julio llega lleno de actividades para los y las zizurkildarras que tengan entre 4 y 17 años. Los más pequeños (4-12) podrán disfrutar de *Oporretan Euskaraz*, (del 27 de junio hasta el 22 de julio) en el cual, este año por primera vez no se ha puesto

ningún límite en el número de usuarios y se han aceptado todos los niños y niñas zizurkildarras. En total serán 99 y se encargarán de ellos 10 monitores. "El ayuntamiento ha reforzado su apuesta por este servicio", remarca Ainhoa Larrea, técnico de cultu-

ra. Del mismo modo, Larrea recuerda que no es sólo un servicio de ludoteca, "como bien dice el nombre, su objetivo es que los niños y las niñas disfruten hablando en euskara", remarca.

Para los y las jóvenes de entre 13 y 17 años Gaztezulo

ha preparado un calendario lleno de excursiones (*ver tabla*). Se puede inscribir en la excursión que se quiera, y para ello solo hay que dar el nombre y pagar la cuota (cada excursión tiene su precio) en las oficinas del ayuntamiento.

“Plazan ze banatzen zu

4

Zizurkilen landa lurretan dauden etxe guztiak *Sakabanatu* gisa egon dira jasota zentsuan eta helbide hori izan dute azken mende erdian. Bailaren izenak herriarrek erabili izan dituzte aurrekoengandik jasota, baina ofizialki ez zeuden definitutua. Egoerari buelta emateko, Teodoro Hernandorena kultur elkarteak egindako proposamena oinarri hartuta, uztailleko udalbatzan onartuko da Zizurkilgo bailara banaketa berreskuratzea. Joxin Azkue Hernandorena taldeko kidea buru belarri aritu da gaia lantzen azken urteetan.

Zergatik da garrantzitsua bailaren gaia definitu eta onartzea?

Gure historia da hau. Aurkitu ditugu 1.300 urte inguruko dokumentuak eta bertan Zizurkilgo baserrietako herriarrek agertzen dira Tolosara joanak eskaeraren batekin. Bada, baserri ia denak gaur arte iritsi dira. Eta bailarak ere gutxienez ordutik datoz. Ez da oraingo kontua. Izenek badute garrantzia. Guk, oraindik, ez ditugu izenak soilik esaten, norbait baserri batekoa da, baserri hartako Benardo edo Karmen bezala ezagutzen dugu. Baserriak mendeetan abizena eman dio pertsonari. Beraz ez da postaren edo helbidearen kontu soila. Ondare ez materiala zaintzea da.

Bailara izen batzuk erabili izan dira baina ofizialki definitzeko, nondik hasi?

Ez zen erraza izan. Informazio ugari zegoen: Baserrietako eskriturak, artxiboetako dokumentuak, argazkiak... baina sakabanatutako informazio hori lotu egin behar zen, eta puzzlea osatu. Eta ohartu gara guztiak logika bat zuela. P.M. Otaño Plazan zegoen mugarri bat zen herriko ardatza, aurreko mendearen hasierako argazki batean oraindik ageri

da mugarria. Itxuraz, obraren baterako plaza altxa zenean desagertu zen baina gure informazioan arabera hori zen oinarria. Eta plazatik hasita lau bailara banatzen ziren garai hartako bideak oinarri hartuta: Zarate aldeko bidea, Buztin bailarako bidea, Azken portura hilerritik doana eta San Migel aurretik igarotzen dena. Horiek 4 bailara definitzen zituzten: Buztin bailara, Akezko, Elbarrena eta Mendi bailara.

Baina bailara horiek bere horretan balio al dute gaur egun?

Ez, eguneratu beharra zegoen. Adibiderako, Akezko bailara Ugareraino iristen zen, izan ere, Azken portu igaro eta Asteasu erreka eskubitara zegoen guztia Akezko zen, beraz Joxe Arregi plaza Akezko litzateke eta Ugare ere bai. Horrek gaur egun ez duela zentzurik ikusi genuen. Guk egin duguna Azken portutik Fraisoro aldeira begira jarri eta ezkerreko guztia Elbarrenan kokatzea da. Oro har Elbarrena bezala ezagutzen dena gaur egun. Bailarak banatzen zituzten bideetan ere aldaketa bat egon da: Bidegurutze (Birautz bezala ezaguna) eta San Migel tartetik igarotzen dena bide zaharra da egun eta berri bat



Ergoien mugarri batek en herria bailaraka”

dago ondoan, aurrera begira hobe delakoan bide berria hartu dugu eta horrek Birautz Mendi bailaran sartzea ekarri du.

Hor arazo bat sortu zen Elbarrena P.M. Otaño plazan hasten zelako...

Bai, P.M. Otaño plazan banatzen zirenez bailarak, Azken portu aldera doan bidetik hasi eta ezkerretara, Birautzko bidera tartean geratzen zen guztia Elbarrena zen. Alegia, Plaza Etxeberri Elbarrena 1 litzateke. Eta horrek noski, gaur egun ez zuen zentzurik, Elbarrena gisa eza gutzen dugun hiri lurretan 2.500 pertsona bizi direnean. Orduan beste herrietakoak begiratu eta proposamen bat egin genuen. Herri barrera bazegoenez Herri goiena ere egotea, Ergoiena bailara alegia. Gaur egun logikoagoa den banaketa. Orduan Beibategi arte Elbarrena litzateke, duela gutxi konpondu duten

Hurrengo urratsak

Hurrengo urratsen berri izan asmoz Ainhoa Azpeitia nekazaritza teknikariarekin hitz egin du Plazaberrik. “Bide aberatsa eta zaila izan da xehetasun asko begiratu behar zirelako, baina talde batek lan handia egin du” nabarmendu nahi izan du lehenik.

Behin udalbatzak banaketa berria onartzen duenean, ez da amaitzen egin beharreko lana. Orain aldaketa horiek gauzatu eta jakinarazi behar dira. “Garrantzitsua da bailara eta baserria jasotzea baina baita zenbaki bat izatea ere, edozein kontu administratiborako ezinbestekoa. Funtsean, aldatuko dena da, lehen etxe bat sakabanatua bazen, zenbaki batekin, ora-

in bere bailara eta zenbakia izango du”.

Hiri lurretan aldaketarik ez

Aldaketak igarriko dituztenak hiri lurretan bizi ez direnak dira, alegia plan orokorrak landa lur gisa izendatzen dituenetan bizi direnak. Horrela, P.M. Otaño plaza inguruko herrigunean eta Elbarrenan hiri lurretan daudenek berdin jarraituko dute, beren kalearekin eta zenbakiarekin. Landa lurretan bizi direnei aldatuko zaie zenbakia eta hiri lurretako salbuespena, Akezko auzoko zati batean bizi direnak dira. Azken portu ingurutik Asteasurako bidean daudenei ere aldatuko zaizkie zenbakiak, Akezko baila-

ra osoaren barnean sartuko direlako zenbaki berriak jarriko zaizkie. “Orain errolda eta zentsua eramaten duen sozietateari abisatu behar zaio, Correosi, Iberdrolari... Hasieran bi helbideak oraindik hor egongo dira denak ohitu arte eta aldatu arte. Udaletik aldaketak izan dituzten etxe guztiei jakinaraziko zaie, bakoitzari egingo zaio jakinarazpena zein den bere helbide berria adieraziz”, zehaztu du Azpeitiak.

Panelak eta seinaleak

Datorren urtera begira aurreikusten da planoak jartzea herrian bailarekin eta etxeetako seinaleak jartzea ere aztertzen ari da Udala. “Hori da bide eraginkorrena egindako lana ofizial bihurtzeko”.

La recuperación de los valles de Zizurkil

Durante siglos, Zizurkil ha estado dividido en 4 valles: Elbarrena, Akezko, Mendi bailara y Buztin bailara. Eso cambió en 1940. “Llegó un secretario al ayuntamiento que impuso el termino disemina-


do para todos los caseríos y un número para cada uno”, explica Joxin Azkue, miembro de Hernandorena Kultur Elkarte. Hernandorena, junto con el ayuntamiento, ha realizado un trabajo exhaustivo para re-

cuperar y actualizar los valles del municipio. “Es parte de nuestro patrimonio inmaterial”, remarca Azkue

5 valles

Tras la aprobación de la

propuesta en el pleno de Julio, Zizurkil quedará dividido en 5 valles: los cuatro históricos más Ergoiena, un valle que se ha creado teniendo en cuenta las circunstancias actuales. “Todos los valles históricos



Herriko bailaren banaketa-proposamena

Udala pieza klabea izan da, bereziki Ainhoa Azpeitia teknikaria eta Aitor Sarasua zinegotzia

Jendeak terminología berria ikasi beharko du...

Ez zait iruditzen oro har terminología oso okerra erabili denik. Jendeak Elbarrena erabiltzen du, Buztin bailaran edo Mendi bailaran bizi direnek ere bazekiten... Hor okerrren batzuk izan dira baina oro har bailara izaera hori belauldiz belauldi transmititu da. Gure ustez, hori bai, okerra den terminología da Zizurkil goia eta behearena. Zizurkil bat da eta 5 bailaratan dago banatua. P.M. Otaño inguru hau herrigunea da, eta ondoren bailarak daude, Elbarrenakoa izanik hiri gune nagusia.

Eta zenbakiak jartzekoan?

Ordena bat jarri behar zen, ordena logiko bat. P.M. Otaño plazatik abiatu gara hemen delako mugarrria. Plazatik ardatzak egin eta pixkanaka joan zenbakiak jartzen hurrenkeran. Ordena horrekin egin dugu.

herri bidea hartu dugu muga gisa. Eta Errekaldetik gora berriz Plaza Etxeberri, Olatza, Mutio... dauden inguru hori hilerriko bidetik ezkerretara dagoena bailara berria bihurtu da: Ergoiena. Aurkezpenetan azaldu genien eta ondo iruditu zitzaizkiren. Beraz bailara berri hori izango du Zizurkilek. Eta bestalde, herrigunea definitu da, alegia, hiri lur gisa hartuta dagoena P.M. Otaño plaza inguruan ez da bailara batean sartuko,

herrigunea izango da, logikoa den moduan.

Noiz galdu ziren ofizialki bailara historikoak?

1940 inguruan. Sekretario bat etorri zen banaketa historiko hori bertan behera botatu zuena. *Diseminado* jarri zien etxe guztiei eta numero bat, tradizioa moztuz.

Lan hau egiteko zer laguntza izan duzue?

Irizpide orokorrak hartze-

ko garaian Euskaltzaindiak dioena edo beste herrietako esperientziak kontuan hartu ditugu baina lanik handiena hemen egin behar da. Laguntza izan dugu, esaterako Xabier Pellejero albaitariak baserrietako pertonekin hitz egin eta ikusi ahal izan du nola zeuden jasota baserriak bailaraka eskritoretan. Lehen argazki bat izateko horrelako laguntzak izan dira garrantzitsuenak. Eta noski

comenzaban en la plaza P.M. Otaño, en un mojón situado en el centro de la plaza que delimitaba los valles. Por ello, Elbarrena también comenzaba en la plaza y el número uno correspondía al restaurante Plaza Etxeberri. Eso no tiene sentido hoy en día con

la población que vive en Elbarrena y, por ello, se ha creado el valle Ergoiena para la parte que queda por encima del caserío Errekalde y hasta el camino del cementerio", explica Azkue.

Tras la aprobación municipal, los que notarán cambios

en sus direcciones serán las personas que viven en casas o caseríos de terrenos rurales. "Las personas que viven en terrenos urbanizables, seguirán como hasta ahora, con su calle y número, tanto en Elbarrena como en los alrededores de la plaza P.M. Otaño", explica la

técnico municipal Ainhoa Azpeitia. Los demás recibirán la notificación del ayuntamiento con la nueva dirección y para el próximo año se prevé la colocación de paneles con planos. Se recuperará así una tradición que nunca se debió de perder.

ALBISTEAK

Laster egongo da martxan kutxazain berria

Maiatzaren 12an sinatu zuten hitzarmena Joxe Mari Luengo Zizurkilgo alkateak eta Mikel Huarte Kutxabank-eko Goierriko zuzendariak. Aurrez, apirileko udalbatzan aho batez onartu zuten hitzarmena Udaleko alderdi guztiek. Adostutakoaren arabera, kutxazain berria Atxulondo kultur etxean kokatuko da. "Udalak proposamen bat egiteko, berea izan behar zuen eraikinak eta Kutxabank-ekin aztertuta egokiena hori ikusi genuen, erdigunean dagoelako", nabarmendu du alkateak. Hitzarmenean gutxienez 3 urteko zerbitzua bermatzeko konpromisoa hartzen du Kutxabank-ek. "Herriak zerbitzu bat ez galtzea eta bertako komertzio bizitza lehenetsi dugu eta era berean, argitu behar da proposamen berbera beste finantza erakundeei ere aurkeztu diegula". Dagoeneko hasiak dira lanak egiten.

Urte hasieratik

Urtarrilaren 29an, aurrez abisurik eman gabe kendu zuen Kutxabank-ek herrian zuen kutxazain bakarra. "Kutxabank-ek kentzeko erabakia hartua zuen, eta hasieran zaila bazirudien ere,

guztionean lortu dugu atzera egitea. Merkatarien, herritarren eta Udalaren elkarlanak eman ditu fruituak", argi du hori Joxe Mari Luengo alkateak. "Pozik egoteko modukoa da, baina era berean argi dugu Kutxabank-ek egin dezakeen gutxienekoa dela Zizurkilgo kutxazain bat edukitzea, ez da egin diguten oparia, euren betebeharra baizik". Alkateak eskerrak eman nahi izan dizkie sinadura eman duten herritarrei eta bereziki merkatariei.



7

En breve estará en funcionamiento el nuevo cajero

El 12 de mayo se firmó el convenio por parte del alcalde de Zizurkil Joxe Mari Luengo y del director de Kutxabank de Tolosaldea-Goierri Mikel Huarte. Según este acuerdo, el cajero se situará en una esquina de la casa de cultura: "Para que el Ayuntamiento pudiera hacer una propuesta, tenía que ser un espacio municipal. Tras analizarlo con Kutxabank, se optó por la casa de cultura dada su ubicación

céntrica", explica Luengo. En el convenio se recoge el compromiso de Kutxabank para mantener el cajero en el municipio al menos durante 3 años. "Nuestro objetivo principal ha sido primar el mantenimiento de un servicio en el municipio, vital para el comercio". Luengo ha querido agradecer a los comerciantes y a los vecinos y vecinas que apoyaron la iniciativa para la reposición del cajero.

Bideak berritzen

Aurrekontuetan jasota dagoen moduan, hilerrirako bidea berritzen aritu dira azken egunetan. 50.000 euroko aurrekontua duen konponketa izan da. "Gaizki zegoen asfalto zatiak konpontzeaz gain, urak bideratzeko sistema hobetu da", argitu du alkateak. Urtero konpontzen du Zizurkilgo Udalak bere eskumenekoa den herri bideren bat. "Helburu hori jarri genuen eta ari gara pixkanaka konpontzen. Beste bideetan lan txikiagoak ere egiten ari gara, Zarateko bidean ere hormigonatu dugu zati bat gaizki zegoelako". Era berean, Plaza Berri, Udal aurrean, kotxeak aparkatzeko duten sarrera asfaltatuko da eta gauza bera egingo da P.M. Otaño ikastetxeko aparkalekuan ere. "Proiektu handiagoa aztertzen ari gara Otañoako aparkalekuari dagokionez, baina momentuz konponketa hori egingo dugu".



Conforme a lo previsto en los presupuestos, los últimos días han arreglado el camino al cementerio. Es una obra que tiene un presupuesto de 50.000 euros. "Cada año intentamos

arreglar algún camino vecinal, cuya competencia es del ayuntamiento", explica el alcalde.

“Liburutegiak ez du liburu eta bere baloreekin lotuta”

Plazida Otaño Aiztondoko Liburutegiak bi hilabete daramatza zabalik. Denbora horretan liburutegi berrira hurbildu diren herritarrek aurpegi berri bat topatu dute bertan: Irene Urruzola Arratibel liburuzaina. Plazaberri berarekin aritu da solasean

burua. Artelekun, Kalostra arte eskolako liburutegian eta Tabakalerako Ubik sorkuntza liburutegian aritu da lanean hurrenez hurren.

Hasiera bikaina

Liburutegiak atek ireki eta egun gutxira hasi zen lanean Irene. Bide berriaren hasieraz galdetuta, balorazio ona egin du. “Bailarako herri guztietako erabiltzaileak etorri dira, eta adin ezberdinetakoak. Lehen Zizurkilgo liburutegiko erabiltzaileak zirenez gain, jende berri gehiago gerturatu da”, azaldu du. Ekaineko azterketen inguruan ikasgela beteta egon dela adierazi du, baina horrekin batera, asko izan dira liburutegiak eskaintzen dituen beste aukerak baliatu dituztenak. Liburu fondo berrituaz edota ordenagailuez gain, hilabete hauetan antolatu dituzten ekintzak azpimarratu ditu liburuzainak: “Bailarako eskola guztietako ikasleak etorri dira bisitan liburutegi berria ezagutzera. Asteazkenetan, herriko gurasoen ekimenez ipuin kontaketa saioak egiten dira txikientzat; eta gurasoak bakarrik ez, maiatza saltsanen baitan, ikasleak eurak ere aritu ziren ipuinak kontatzen. Hizkuntza ezberdinetan kontatutako is-

Astegunean arratsalde zehar larunbat goizez, liburutegira gerturatzen diren erabiltzaileei ahalik eta arreta hoberena ematen fin ari da Irene Urruzola. Izan ere, Aiztondoko herritarrentzat ez ezik, Irenerentzat ere lantoki berria da Plazida Otaño liburutegia eta hasiera guztiek sortarazten duten ilusioa ikusi diogu begietan. Dena den, liburuzain gisa esperientzia zabala du Urruzolak: “Arte ederretan lizentziatua naiz, eta artean espezializatutako liburutegi ezberdinetan jardun dut orain arte”, aurkeztu du bere



“La biblioteca no debe limitarse al catálogo, tiene que ofrecer actividades”

Irene Urruzola Arratibel es la nueva bibliotecaria de la biblioteca Plazida Otaño de Aiztondo. Licenciada en bellas artes, anteriormente ha trabajado en bibliotecas

especializadas en arte, tales como Arteleku, Kalostra y UBIK de Tabakalera. Urruzola ha valorado positivamente los primeros meses de la nueva biblioteca. Aparte de

la gente que se ha acercado a utilizar los diferentes servicios y espacios que ofrecen, ha remarcado la buena respuesta que han tenido las actividades programa-

das. Y es que Urruzola tiene claro que “las bibliotecas no deben limitarse al catálogo, sino que tienen que organizar actividades ligadas a sus valores”. Para ello, la biblio-

a dokumentuetan geratu behar, asko ekintzak eskaini behar ditu”

torioak entzuteko aukera ere izan dugu. Bestalde, Maria Altunaren eskutik, artista liburu tailerrean ere 15 lagunek eman zuten izena. Era honetako ekintza mordoa izan dira, eta oso erantzun ona izan dute”, azaldu du pozik. Arrakasta hori lortzeko bidean, Ireneren ustez laguntza handikoa da liburutegiaren espazioa antolatzeko modua. “Izan ere, zeregin edo behar bakoitzerako espazioak ongi definituak ditugu, baina aldi berean moldatzeko aukera ematen dute. Adibidez, maiztzean, hiru ipuin kontaketa saio egin genituen aldi berean, entzuleak adin taldeketa banatuta eta bakoitzari liburutegiaren espazio bat emanez, oso polita izan zen”. Malgutasunarekin batera, liburutegiaren kokapena ere “paregabea” da. “Herriko plazan, oso eskuragarri geratzen da”. Larunbat goizetan ere, ez du aspertzeko betarik izaten. “Badirudi inguruko herrietan ez dagoela ludoteka edo antzeko zerbitzurik eta astean zehar etorri ezin duenak, larunbatean gerturatzen da”, gehitu du.

Zaharkitu edo egokitu

“Argi dago: gizartearen beharretara egokitzen ez bazara atzean geratzen zara”. Herrietako liburutegi askotan

ikusten ari den errealitatea da hori, eta Aiztondo bailara ez da salbuespena. Horregatik heldu zioten Zizurkilgo Udalak eta Aiztondoko gainontzeko udalek liburutegi berriaren apustuari. “Alde horretatik, oso positiboa iruditzen zait udalerrri ezberdinak elkartu izana. Indarrak bateratzen badituzu, zerbitzu hobea ematen da”, dio garbi.

Urruzolak Tabakalerako Ubik Sorkuntza Liburutegian bizitu zuen liburutegien munduan ematen ari zen berrikuntza hori. “Liburutegiek gizartera egokitu beharra ikusi dute azken urteotan. Ez bakarrik fondoari, katalogoari dagokionez, irakurketaz haratago zerbitzua berritzeko beharra sortu zaie”. 9-10 urte bitarteko haurrak izaten dira liburutegietako

ohiko erabiltzaileak. Baina behin irakurtzeari uzten diotenean eta adinean aurrera egitearekin batera beste interresgune batzuk izaten dituztenean gaztetxo horiek liburutegiko ibilbidetik atera egiten direla azaldu du. “Horiek berriro liburutegira erakartzeko gakoa ez da fondoa eguneratuta izatea soilik. Ekintzak antolatu behar dira, liburutegiak

«*Ekainean beteta izan dugu ikasgela*»

bultzatzen dituen baloreekin lotutako ekintzak”. Ildo horretatik, txalotu egin du ipuinak kontatzera liburutegira hurbildu diren herritar ezberdinen ekimena. “Asko eskertuko genuke adin ezberdinetako jendea eta bailarako herrietakoak

gerturatzea, bakoitzak dakien horretatik eskainiz. Adibidez, aiton-amonak, aitak, edo eta gazteak ipuinak kontatzera etortzea oso aberasgarria litzateke. Hemen ez dago mugarik”, gaineratu du.

Liburuzain aktiboa

Liburutegiak aldatu badira, liburuzainen zeregina ere bai. “Liburutegian dena prest eta gauza bakoitza bere lekuan topatzen duzu, baina horretarako lana egin behar da. Hori da gure zereginetako bat. Baina horrez gain, etorkizuneko liburuzaina liburuzain aktiboa izan behar da”. Horretan saiatzen ari dira Plazida Otaño Aiztondoko Liburutegiko liburuzainak. Ikasturtearen amaiera balorazioak egiteko unea izaten da, baina baita aurrera begira egin beharreko lanak aurreikusteko momentua ere. Zentzu horretan, iraila urrirako ekintza berri gehiago antolatuko dituztela jakinarazi du Urruzolak.

Bien bitartean, uztailean goizez (eta astelehen arratsaldetan) zabalik egongo da liburutegia. Abuztuko lehen hiru asteetan oporretan egon ondoren, ikasturte berriarekin batera, indarberrituta, eta bidea egiten jarraitzeko prest itzuliko da Plazida Otaño liburutegia.



vidades ligadas a sus valores”

teca de Aiztondo ofrece muchas oportunidades, ya que el espacio está organizado de una forma polivalente. Todos los miércoles, suele realizarse una actividad de

cuentacuentos de la mano de un grupo de padres y madres de Zizurkil. Hasta ahora se ha acercado gente de toda la comarca, lo que, en opinión de Urruzola, es

muy “satisfactorio” y anima a la gente a que participe más. En la biblioteca de Aiztondo tienen intención de organizar más actividades a partir de septiembre. Antes, se toma-

rán unas vacaciones durante las primeras tres semanas de agosto. En julio abrirá sus puertas de lunes a viernes por las mañanas (y los lunes también por la tarde).

Danenak korrikarako kamiseta estreinatuko du

Korrika ibiltzen diren zizurkildarren eskaria betez, Danenak Atletismo taldea izango du. Urrian emango du izena klubak Gipuzkoako Atletismo Federazioan.

Danenaren ardatza futbola bada ere, argi dute "futbola ez dela dena, beste kirol batzuk ere badaudela", eta duela hamarkada batzuk Zizurkilgo klubak zuen atletismo saila nola berreskuratu duten kontatu du.

Herriko korrikalarien eskaria

"Zizurkilen badago talde bat korrika ibiltzen dena. Batzuk maila herrikoiean eta beste batzuk federatu bezala. Horiek gerturatu zitzaizkigun esanaz, ondo legokeela Danenaren izenean korrika egiteko aukera eskaintzea", azaldu du lehendakariak. Ideia gustatu, eta batzarrean proposatu zuten. Baiezkoarekin ibilbide burokratikoari ekin zioten. "Gure estatutuetan jasotzen zen aktibitate bakarra futbola zen, eta atletismoa txertatzeko estatutuak aldatu behar izan ditugu". Bide batez, txi-

rrindularitza klubaren aktibitate gisa jasotzeko ere baliatu dute abagunea. "Oraingoz ez gara txirindularitzarekin hasiko, baina asmoa badago eta aukera sortzen bada lan burokratiko egin daukagu", aurreratu du. Estatutuak aldatuta, Aiztondoko korrikalarietara batera deitu zitzairen eta dagoeneko 35 laguneko taldea osatu dute, "eta beste batzuk ere etortzekoak dira", gehitu du.

Helburuak

Urrian Gipuzkoako Atletismo Federazioan talde bezala emango du izena Danenak. Era honetan, bertan korrika egiten duten korrikalarietara taldearen izenarekin federatzeko aukera izango dute. "Ez da derrigorrezkoa izango federatzea", argitu du Sarasolak, "baina federatua izanda lasterketa herrikoietan ez ezik, federazioak antolatzen dituen lasterketan ere parte hartu

ahal izango dute korrikalarietara". Bide honetatik, Danena eta Zizurkilen ordezkari bezala, lasterketan korrika egitea da helburua. Eta noski, korrika egiteko zaletasuna dutenei, lasterketarako eta entrenamendurako lagun talde bat eskaintzea. Interesatuek 667.431.836 telefonora deitu dezakete informazio eske.

Momentuz jende helduari zuzendutako eskaintza da. "Eta egiari zor, atletismoa baino gehiago korrika taldea da sortu dena", aitortu du, "baina dagoeneko etorri zaizkigu hurrekin atletismoa egiteko eskatu duten gurasoak. Baina horretarako baliabideak eta azpiegitura egokia behar da, eta gaur egun ez daukagu horrelakorik". Dena den, ilusioa eta lanerako gogoia ez zaie falta, eta ziur lorpen eta eskaintza berri gehiago etorriko direla Zizurkilera Danenaren eskutik.

"Hirurehun ume dabilta futbol eskolan, bai zizurkildarrek eta baita Tolosaldeko hamaka herritakoak ere. Nesken taldea ere sortu genuen eta datorren ikasturtean jarraitu egingo dugu. Eta orain, atletismora egin dugu salto". Horrelaxe, hasperen batean laburbildu dio Plazaberriri Josu Sarasola Danena Kirol Elkarteko lehendakariak azken urteetan egin duten lana.



Danena estrena kamiseta de atletismo

El club de Zizurkil ha creado el grupo de atletismo. "Un grupo de corredores del pueblo nos pidieron crear un grupo para poder competir en las carreras con la camiseta del Danena", explica el presidente del club Josu Sarasola. Aprobaron la idea en la asamblea y cambiaron los estatutos para incluir el atletismo como actividad del club. "De este modo, en octu-

bre nos inscribiremos como club de atletismo en la Federación de Gipuzkoa de Atletismo, y así, nuestros corredores y corredoras tendrán la oportunidad de federarse y correr en las carreras que organiza la federación", aclara. De momento hay un grupo de 35 corredores, pero aún esperan que se apunten más. Los interesados deben llamar al número 667.431.836.

Maiatza Saltsan argazkitan



Donostia 2016ren barneko Emusic jaialdia Zizurkilera ere iritsi zen.



Lehen aldiz Dantzari Txiki eguna egin zen Bukalai dantza taldeak antolatuta.



Zizurkilgo nigeriar jatorriko herritarrek bere ohitura eta dantzak erakutsi zituzten.



Lladoko herritarrei egindako harrera arrakastatsua izan zen guztiz. Hurrengo egunean Zizurkilgo bazterrak ezagutzeko aukera izan zuten animatu zirenek.



JAVI PEREZ



“Aukera asko dituen instrumentua da tronpeta”

Javier Perezek umea zela ekin zion tronpeta jotzeari. Egun besteei irakasten dihardu eta irakasle lana hainbat taldetako jardunarekin uztartzen du: Esne Beltzarekin, esate baterako.

Noiz eta nola hasi zinen tronpetarekin?

Txikitan hasi nintzen; aita tronpeta jotzailea zen eta jostailu gisa hartzen nuen tronpeta. Aitak jotzen zuenean jotzen nuen nik ere eta bere kontzertuetara joaten nintzen... eta hortik dator zaletasuna.

Eta gerora, zein izan da bi-dea?

Musika eskoletan ikasten hasi nintzen, kontzertu batorioan, eta 10 urterekin aitarekin eta arrebarekin hasi nintzen ezkontzetan eta antzerakoetan jotzen. Orain eskolak ematen ditut gehienbat, baina jo ere bai: besteak beste, Esne Beltza, La Maravillosa Orquesta del Alcohol, Travellin' Brothers eta Still Rivers taldeekin, eta orain hasiko naiz Jean-Marie Ecayekin. Baina beti ere eskolak ematen, sostengu ekonomiko bat izateko. Zentzu honetan administrazioa gaizki samar dago: eskolak ematen ditugu eta batzuetan baldintza onak izan arren, hautaketa prozesua nola egiten den, lan poltsak... ez daude ondo eginda nire ustez, hemen inguruan batez ere. Ez nago funtzionamenduetarekin ados.

Irakasle izanik, sumatuko duzu: zein da tronpeta ikasteko joera? Jende asko hurbiltzen da?

Donostiako musika eskolan nabil lanean. Gero eta jende gehiago dago tronpeta ikasten, nahiz eta beti pianoa izango den erregina; inguruaren arabera trikiak ere indarra du, gitarrak, bateriak... Garai batean tronpeta ez zegoen modan, eta gaur egun ska musikan edota latinoan, tronpeta asko agertzen da. Urtean 15-20 disko grabatzen ditut hemen inguruan: Badago mugimendua. Folklorean tronpetak badu tokia, skan, salsan, musika klasikoan, txaranga... tronpeta horietan guztietan dago egun. Aukera asko ematen dituen instrumentua da.

Emusikeko amaiera ekitaldiko musika zuzendaria izan zinen. Zer moduzko esperientzia? Lehen aldia zenuen zuzendari eginbeharretan?

Esperientzia ona, arrakatsua izan zelako eta ikasleak oso pozik geratu zirelako baina lan handia izan zen; adibidez, Springsteen etortzen denean laguntza handia

ematen da baina beste batzuetan gutxi edo ia ez dago laguntzarik, eta batzuetan horrek erre egiten zaitu.

Bazan herri txiki bat herri antzerkian ere hartu zenuen parte. Zer nolako balorazioa egiten duzu horrelako herri ekimen baten inguruan?

Oso ondo ateratu zen. Batzuketan, Iraitz Lizarragak tartean, sekulako lana egin zuten, nik bakarrik tronpeta jotzen. Horrelakoak egin behar dira, kontua da zaila dela, baliabide aldetik, jendea biltzea bestetik... aitzakia bazegoen, egin zen eta ondo ateratu zen. Hemen, plazan ikusten aritu nintzen gerora, eta oso ondo.

Irakaslea zarenez, oporrak hurbil izango dituzu. Etor-kizun laburrean, proiekturik bai eskuartean?

Orain gehienbat Esne Beltzarekin ariko naiz. Oso gustura nago: taldearekin konektatu dut, pertsonalki ere bai. Jean-Marie Ecayekin jazz proiektu bat gauzatuko dut; gitarrajole ezaguna da European. Izugarri gustatzen zaidan musikaria da eta oso motibatuta nago ikaste-

ko. Iban Gurrutxagarekin ere ariko naiz; Jazzaldian Txikijazeko irakasle izango gara. Beste kontzertu batzuketan ere izango dira tartean: Travellin' Brothersekin, La M.O.D.Arekin, txarangarekin eta arreba eta aitarekin bateren bat ere bai.

Esaiaguzu...

Herriko leku bat:

Urkamendi elkarte. Denbora luzez egoten naiz bertan, gustuko dut sukaldian aritzea.

Herriko pertsonaia bat:

Ez dakit ba...

Zer botatzen duzu faltan herrian?

Jendeak herriko ekimenean parte hartzeko tartea hartzea. Badakit jendeak gauza asko dauzkala egunerokoan baina festetan parte hartzea, berbenetan norbait jotzen badago giroa sorrazteko hor egotea... kalean giroa sortzeko parte hartzeko ahalegina.

Eta zer dago soberan?

Ezer egin ez eta gero kiritika errazera jotzen duten pertsonak.



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.